

## KRISTAU FEDEA MENDE BARRIAREN ATARIAN

Mende amaierak eta asikerak ez dakarre berez aldaketarik giza bizitzan eta Eliz bizitzan. Alan be, egokiak dira inguruko aldiari begirada bat botateko. Non garan, norantza goazen. Etorkizunari buruz, gaiñera, ez dogu asmakizunik aurreratu nai. A dala-ta esango doguna, egitez oraiñari buruzkoa izango dogu: gaurko egoerea norantza abiatzen dan. Etorkizuna esaten dogunean oraingoaren mugimentua dogu gogoan. Onek arduratzen gaitu. Etorkizun utsa ez da gurea.

### **I. Joandako mendea.**

XX garren mendea aberatsa izan da kristautasunaren istorian. Erdian, mendearen bigarren partean, garai jasoten da Vaticano II Batzarra (1962-1965). Istoriako jazokun guztiak lez, batzar gotor ori ez zan ezerezetik sortu. Mendearen aurreko amarkadatan biziriko bearrizanak eta kristau gogoetak artu ebazan barruan eta arei bide emon

Mende onen asikeran Elizak (aurreko mendetik etozala) liberalismo, sozialismo eta modernismo teologikoa zapuztuz, batera pentsamolde eta teoria orreek aurkezten ebezan arazok ez zituan naiko aintzakotzat artu. Ezak eta utsak eta arriskuak azpimarratuz, gizarte mugimentu areen alderdi positibokak ulertzeko jarrera eta batez be arazoen larriak konpontzeko

aalegiña falta izan ziran. Indarrak, sarritan jazoten dana, besteen saioen, aalegiñen kontra joiazan, arazo larriak konpontzera baiño. Jakiña Elizak dotriña zuzenaren ardura izan bear dauana. Baiña ideia desbideratuak, oneek sortzen dabezan egoerak konponduta gaintitzen dira obeto. Polemikak ez dau bestearen alderdi onik ikusten izten. Eta arazoak or gelditzen dira, aalegiñak zapuztuak izan arren. Beti be, arazo objetiboak dira gogoan artu bear diranak, arei buruzko ideia eta saioak bigarren maillakoak izanik.

Mende onetan teori orreek aurkitzen ebezan arazoak politika eskubideak ziran, ekonomi indarren erabilpena gizarteko bearrizanak eta zuzentasun ezak gaintitzeko. Batera, kristau fedearen edukiak eta ikuspegiak arazo barrien aurrean aurkitzen ziran: filosofiak eta zientziaren aurkikuntza ezbaridiñak teologi edukiak eta errebelaziño iturria zan Idazti deunaren ulermena eta autoridadea ikutzen ebezan. Istorio datoak, literatura azterketak batez ere bibliaren oizko ulermena kolokan ipinten eben. Guzti onen aurrean, kristau fedea, errebelazio-bidea batez ere, barriro pentsatu bearra asmatzen zan, eupada onei lekua emoteko eta aren zentzuna barriro ikusteko. Baiña kristau fedea galtzeko bildurrez, "integrismo" esango geunken pentsakera eta jarrera nagusitu ziran.

Leenengo mundu-gudaren ondoren, aren giza zurrunbilloaren ondorioz, erreazioa asmatzen da: batez be eliz istoriaren eta eliz gurasoen ikerketaren eragiñez. Eliza-zentzuna edo Elizaren beraren barrutiko bizipen positibo eta baikorra. Eta orren barruan liturgi mobimentua. Aldi onetako kristau pentsalari bi aipatzekotan R. Guaridini eta E. Przywara izan daitezke. Ez da aaztutekoa aurreko mendeko Newmann-en ondorengokak dirala, baiña aren eragiña modernismo aldian ixildua izan zan. Ezer be ez da izaten guztiz barria eta ezerezetik sortua. Bai arazoak eta bai erantzun saioak aurreko mendean ere izan ebezan asikiñak.

Politika eta gizarte arazoetan ere parte artu bearra geroago eta argiago ikusi zan kristauen artean

Bigarren mundu-guda ostean eliz-pentsamentua eta bizitza barrizatu bearra argiago ikusi zan, biblia ikerketan, teologi gogoetan eta pastorgintzan. Geien baten Frantziako eta Alemaniako teologoak eta ikerlariak dira aipatzekoak. Saio orreek teologia alderdi guztietara edatu ziran. Elizen arteko batasuna ere geroago eta ardura andiagoa izan zan. Eta, orokorri, munduko arazo andien ardurea geitzen joian.

Mendeko amarkada orreetan eliz-bizitza sutsuaren ondorio eta agerpide bi dira aipatu bearrekoak: erlijioso bizitzarako eta eliz-serbitzurako bokazioak; mendearen leenengo zatian zear (aurrekoan asita) Instituto eta asoziazioño barriak sortzen dirala. Bigarrena, leenengoari lotua, irugarren munduko misiñoen ugaritzea, au ere emeretzigarren mendean egindakoaren garrantzia.

Ain zuzen be, Eliza, itxura batetik, sutsuen eta garbien edatzen zan aldian batzartu zan Vaticano II., pastorgintzarako asmoz, au da, ebangelioa aldiko eta lekuko erriarentzat ondoen egokitzeke xedez. Izan be, Eliz-bizitza osasuntsu orrek bearbada obeto asmatzen ebazan arazoak: elizen-banaketa eta teologia eta pastorgintzako "izkuntza" osoaren egokitasun-eza. Aurreko barriztapen-bearrizaneren asmaketak, gogoetak eta egitezko saioak Vaticano II Batzarrean nagusi izatea lortu eben; ez aalegin eta ekintza barik, lorpen ori aurretik ez zan ziurtatua eta. Aurreko urratze lan areek orrela sakonago aztertu eta unibersalizatu egin ziran, legez eta zelanbait egitez, nai ta au ez oindino guztiz mamitu izan. Orrela, mende onen asikeratik (eta askoz leenagotik ere bai) etozan arazoak tratamentu zabal eta orekatsua izan eben.

Vaticano II Batzarraren punturik beiñenak, besteak beste, oneek izan daitekez: 1. Gizakiaren izate istorikoa, eta orretan gaurko istoriaren mugimentu azkarra; beraz, fedearen gizatasu-

netik sortzen dan aren istorikotasuna. 2. Eliza alkarte lez eta espiritu batasun lez ulertzea, lekuan lekuko elizaren nortasuna eta onen eliza osoarekiko erantzukizuna. 3. Jainko graziarekiko jarrera baikorra. 4. Ondorioz, erlazio positibo eta baikorrak baieztatzen dira beste eleizei buruz (ekumenismoa), beste erlijioei buruz, eta baita munduko baloreei buruz ere, Aitaren Erreiñuaren aurre-egiteratze lez. 5. Munduko errealitateen autonomia erlatiboa.

Vaticano II Batzarrak arturiko bidea nora eroan legiken ez da jakiten asikeratik. Batzarra bere itzez-itzezkoan be oindiño ez da gauzatu leku guztietan eta aren alderdi guztietan. Baiña orain esan gura dodana beste da: Batzarraren onarpen eta ondorio osoa, dana dala, noraiñokoa dan iñork ez dakiala asikeratik. Erabagiak artzen ebezan batzarkideak be ez. Areek pausu batzuk egin ebezan, pausu orreek zelango istoriaren dinamismo jarraia izango eben jakin barik.

Ez zan, beraz, azken geltokia izan; berak onartu eban istorikotasunaren arabera, bultzada izan zan istori prozesuan. Bitartean, Batzar arek ikusitako bearrianak eta erantzun saioak sendotu egin dira. Alderdi batetik, bearbada gizaldietan egin ez ziran aurrerakuntzak egin dira arlo askotan. Batzar ondorengo barriztapen giro sutsukoak dira bereziki gogoketa arloan teologi politikua eta askapen teologia, eta, orokorki, fedearen ulermena giza-bizikizunagaz eta munduko esperientziagaz alderatzea. Fede orren eta pastorgintzaren inkulturapena azpimarratua izan da, naiz eta egitez oindiño egiteetatik urrin izan.

Politika aldetik, kristau etikaren ikuspegiagaz artuemonan dauan alderditik, mende onetan, pentsamolde eta jarrera demokratikoaren garaipena gertatu da, nai ta gorabeera larrien artean, momentu batzuetan galtzeko arrisku andian edo galdu-ta be bai; baiña giza ideal eta elburu danez, garaille urten dau; orri dagokiozan egiteak, leku askotan eta era ezbardinietan, oraindiño egizko eta egitezko izan ez arren. Orren barruan,

emeretzigarren gizaldiaz gero Eleizeagaz eta egitez fedeagaz etsaituta bizi izan dan gizarte-sistema baten ondamena, komunismoarena, gertatu da, ainbat naziñotan gogor edatua izan ondoren. Jazokun onek, baiña, ez deutse beste barik urtenbiderik emon dotriña eta praktika arek konpondu nai izan eban arazoai.

## **II. Mende barriari begira.**

Beraz, bitartean aldatu egin dira arazo batzuk, baiña ez gixtiagotu, eta orain argiago ditugu begi aurrean, egindako esperientziaren ondoren. Ona emen aurrera begira gure kristau ikuspegia eratzen daben arazo batzuk.

### ***1. Sekularizazioa.***

Prozesu luzea izan arren (gizaldietakoa), gure kultura inguruan batez be azken amarkadatan finkatu da eta bere emoitzak emoten diardu. Erlijioa esparru publiko eta agiritik desagertuz doa, gizarteko eta munduko arazo eta lege guztiak erlijiotik kanpora oiñarritzen dirala. Eta bizitza personalean bertan be, bakoitzaren kontzientzian, esan leike erlijioak zelanbait, leengoagaz alderatuta, geroago eta esparru gutxiago beteten daua: bakoitzaren munduarekiko artuemonetan erlijioa laiñotu egiten da, ez dauka eginbearrik, eta neurri orretan zentzua galtzen doa. Erlijioaren alkarte zentzuna geroago eta makalago da nonbait askorentzat. Erlijio dotriñen artean norberak egiten dau aukeraketa, alkarteko goi-autoridade barik, norberaren zentzunak eskatzen dauan neurrian. Bakoitzak bere erlijioa, beraz, zelanbait. Bardin jazoten da, bearbada ez gixtiago, moral gaietan. Dotriña zeatz eta gogorak arbuiatu egiten dira, eta batez ere, norberak uste dauana gordeten da. Erlijio praktikan bizikizun atsegingarriak eta momentuko sentimentuak agintzen dabe. Guzti onek onela jarraituko dauan ala ez, ezin leiteke jakin. Alderdi ezbaridiñetan erreazioak izan daitekez. Baiña gaurko pluralismoak olako ondorioak emotea berezkoa da.

## 2. Globalizazioa.

Emendik aurrera geroago eta geiago daukagun errealidade soziala mundializazioa dogu. Komunikazioan leenengo: proiektu tekniko aldetik mundu guztiko barriak aurrean izateko aalbidea. Au, jakiña, ez da egiteratu zati txiki baten baiño; munduko erririk eta biztanlerik geien-geienak ez dabez oraindiño leenengo komunikabideak ere gozatzen eta. Alan be, proiektu danez, or dago, eta gerorako jokerea guztizko edatze ori izango da.

Baiña arazo aldetik globalizazioaren beste esangurea dogu orain garrantzitsu: ekonomiaren eta onen oiñarrizko pentsakeraren mundializazioa. Au da: ekonomi guztian merkatuaren legeak agintzen dauala. Geroago eta merkatu zabalagoak bear dira, eta izan be izango dira, ekonomiaren berezko indarrez. Merkeen ondoen, egokien lan egiten dauanak eta saltzen dakanak irabaziko ditu merkatuak. Eta au berezko legea danez, auxe dala gizartearentzat onena. Beraz pentsakera umanistak (gizakia dala leenengo, bere bearrizanak eta garapena; lana eta merkatuak aren serbitzuan jarri bear dirala) ez daukala or sartzetik. Erizpide umanista aui dogu, ostera, Elizaren dotriña sozialaren iturria. Dotriña au, ekonomi legea ukatu barik, lege ori barrutik zuzentzen aalegintzen da. Baiña ekonomi legeak orrela prozesoa makaldu baiño ez dala egiten esango dau, eta azken baten kaltegarri dala, gitxiago eta txarrago produziko dala eta. Egitez, pentsakera onek agintzen dau oraingo ekonomian, kontrako barik. Produzioaren emoitza batzuk zelanbait bai banatzen dira, prozesu orretan alboan eta atzera geratu diranen utsuneren batzuk estaltzeko. Baiña gizadi osoaren serbitzurako projektorik ez da ikusten, ezta munduko ekonomiak beste bidcerik artu leikeanik be: norabide umanista, gizonaren eta errien bearrizanak aurrean dirala, ekonomia diseñatzeko proiektua. Eziñezkoa, esan dogun lez, batzuentzat. Baiña orrela balitz, kristau pentsakera sozialaren azkena, beste batzuentzat.

Orain artean lez, laguntzak, gerora eta betirako, sendagarri txikiak baiño izango ez badira, emen dauka mende barri onek arazorik aundienetariko bat. Ori, baiña, ezin daiteke goitiko egitasmu utsaren ondorio izan, kristau eta gizadi kontzientziaren aldaketak eragiña baiño. Munduko ekonomi eta politika agintariak ez dabe aldatuko euren errien kontzientziak biziro eskatzen ez dauanik.

**3. Giza eskubideak,** nai ta onen kontzientzia andiagotzen joan, ez dira egitez ezarri munduan, ezta antzik be. Amarkada oneek triskantzak ikaragarri askoren lekuko izan dira. Leengoagaz konparatu bearrik ez dago, baiña gaitza da oraingoak leenagokoak baiño leunagoak dirala esaten. Giza piztikeria noraiñokoa dan erakusten deuskue, eta batera noraiñokoa beste guztien indiferentzi praktikoa eta naziño arteko ekimenik eza, olako triskantzak jazoten izteko. Onen barruan, gaurko munduaren zentzungabe eta zorakeria gose eta miseri egoera iraunkorrean daukagu argien. Alde batetik, aberastasun lotsagarriak, ondasunan larregiaz zer egin ez dakigula; begitu eziñeko miseria, bestetik.

**4. Lurraren destinoa eta gizadi osoaren geroa** gizakiaren esku dagoala konturaturik asten dogu mende barria. Au be mundializazioaren alderdietariko bat dogu: geroago eta geiago lurberaren eta gizadi osoaren erantzukizuna gizonak dauala bere erabagi eta ekintzetan. Lurreko indarrak eta ondasunak ez dirala amaibakoak; egiten danaren ondorioak beste erri batzuk, orretan ez parterik ez onuraruk izan ez dabena, jotzen dituela. Gizadia ondatzeko iskilluak eta bideak, geroago eta zabalago, gizonaren esku dirala. Arriskua andituz doala, eta erantzukizuna be bai, eta batera, gizona bere erantzukizunaren aurrean, aula dalaren sentimentu larria.

Arazo andi batzuk aipatu ditugu, kristau fedearnak berarenak eta gizadiarenak, baiña kristau fedearentzat iñondik be in-

diferente ez diranak, gizonarenak diranez. Mende onen atarian kristau fedea, Eliza, norantza joango dan, eta bear dauan, oraindik. Esango ditugunak ez dira barriak, baiña bein ta barriro gogora jatorkuzan alderdiak ditugu, aipaturiko arazoetan gogoa jarten dogun bakoitzean.

A.- Mende barriko Elizan, fedea *personalagoa* izango da. Antza danez, gizarteko pluralismo barruan, eta batez be indiferentismo praktikoaren barruan, kristau fedea ez dau jarraituko kultura erentziz, ez beintzat bere izate zeatz zuzenean. Au esan nai dot: kristau fedearen balora batzuk jarraitu daikee erentzi kultural eran, eta orrela kristautasunaren emoitza gizartean eraginkorra izan. Baiña fedea bera, zuzenean, bere eduki barruko eta muiñenetan, fede "erlijioso" danez (zelanbait esateko), aukera gitxiago dauka kultura-ondare eran jarraitzeko. Jakiña benetako fedea iñoz be ezin leitekela jatorri utsa izan. Jatorria fedearen barri emoteko bide da, baiña ondare utsa lez ezin leiteke benetan onartu. Egitez au epaitzea zailla dogu. Baiña, dana dala, aurrerago aipaturiko fedezko jokerak naiko erakusten dabe bearbada jatorriak geiago jokatu dauala norberaren aukera personalak baiño. Alderdi onetatik, esan leiteke aurrerantzean, zelanbait, era jatorragoan aurkituko dala fedea bere izatearen araberu gauzatu aal izateko. Personalak izateak au esan nai dau: norberak ikusi eta asmatu edo bizi dauala kristau fedearen bearritzana, itxaropena, bizigarria. Orretan Kristoren persona bera sartzen da eta Aitaren ezaguera, guztiaren zentzuna eta norakoa.

Batera, eta fede personalaren barruko alderdia danez, kristau fede au alkartekoa izango da. Fede bera geitzeko, berotzeko, adoretzeko, eta onen betebearrak alkarregaz erabagitzeko. Kristau fedea asikeratik, bere izateatik da alkarre, gorputza, Kristoren inguruan. Eta gaurko gizakiak, alderdi batetik indibidualista izan arren, badau alkarrearen miña eta barne-bearritzana. Jokera biar alkartzen saiatu bearko da.



B.- Kristau fedeak, leenengo unetik, artuko dau bere-bereztzat *munduarekiko ardurea*. Ardura orretan bake-eza eta gizakien miseria eta gosea izango dira leenengoak. Au ez dogu barria, eta berbabide utsa eta indar bako moralismoa dirudi. Baiña guda-sarraskioak, miseria eta gose-egoerea eroan-eziñeko biurtuko dira kristau kontzientzian; ez une bateko sentimendu eta noizbeingo protesta bakarrik, orain arte geien haten jazoten dan erara. Bere leenengo elburutzat jarriko dau aren kontrako ekintza, bere indarrak munduko kontzientzia astintzeko erabilliz. Batzar Nagusi barri bat izango balitz (eta luzaro barik izango dala uste dogu), gai au aurrenekoa izango da aren arduretan.

Badira beste arazo batzuk, oso larriak, abortoa eta bioetikak aurkezten dituanak. Eta beste batzuk, kristauak ardurutzen dituenak, esate baterako, dibortziatuei bide barria eskeintzea, andrazkoen apaizgoa, gotzaiñen eta apaizen aukeraketa eta bar, garrantzizkoak, baiña munduko erailketan eta gose-miseriaren ondoan, atzean datozenak.

Goseari eta miseriari emon bearreko erantzuna ezin daiteke benefizentzi utsa izan, argi dagoan lez. Egun bateko soluzioa ez da urtenbidea, eta errialde orreek beti menpean eukiteko bidea izango litzakigu. Kristau fedeak mundu-antolaketa barria eskatu eta bideratu bear dau. Benetan mezu eta ekintza askatzaileak. Krisitautasun askatzailea, personak eta erriak askatzeko mezua. Ekintza orretan fedearen trazendentzia illundu egin leilkealaren bildur barik, ez orain arteko era bildurti, zatikako eta eragipen gitxikoan. Kristauarentzat ekintza orretan jazoten da trazendentzia, eta ori bakoa ez da kristau trazendentzia, ideia metafisiko utsa baiño. Kristautasunak gogoan dauan trazendentzia "jazo" egiten da, errealizatu, erabagian eta egiteetan. Ori egitean jarten da gizona trazendentzian, bere bizitzagaz or sartzen; aurretik ideia eta eskeintza baiño ez dagoz.

C.- Mende barriko kristautasunak estuago eta sakonago ikusiko ditu alkaturik trazendentzi beraren alderdi biok, edo

errealidade biok: *Jaungoikoa eta gizona*. Batak nai besteak ez dau bestea gitxiagotzen. Euretariko bat bere ez da berbera, bestea barik. Ez da bildurrik izango Jaungoikoa gizonaren definizioa dala esateko. Jaungoikoaz jardun garanean gizonaz jardun garala. Ez dago Jaungoikoa gizonaren propiekzio biurtzeko arriskurik: Jaungoikoaren errealidade barik gizona be ez da erreala. Jaungoikoa ilusio izatea gizona bera ukatu eta ilusio biurtzea da. Gizonaren erdiunean Jaungoikoa dago. Ori da erdi-ikusten doguna gizonaren duintasunaz konturatzen garanean eta onen eskubideak ikutu-ezintzat jartzen jakuzanean.

D.- *Elizaren egitura aldatuz* joango da gaurko eta biarko kontzientziari erantzuteko. Aldakuntza ori ez da errezkeritik sortuko edo aldiko modari jarraitzeko guraritik. Istorian zear izandako benetako aldakuntzak izango ditu gogoan, orretan dauan askatasunaz jabetu daiten. Orain arte egin ez badau, errezkeria eta moda alboratzeko izan da, baiña baita barru estutik be, oraindino bere benetako istoriak irakatsi bear deutson askatasunik ez daualako. Jesus bera da Elizak zaindu bearreko doaia. Jakiña, Jesus konkretoa ez de izena bakarrik; eta eduki barik izen bat biurtuko litzake. Baiña danaren azpian badago bere berbizkundearen presentzia eta indarra (Espiritua), eta guztiaren erizpide oiñarrizkoa doguna: ebangelioko "maitasun bikoitza", ebangelioaren biotza. Eta ori, kristauak artzen dauan doa lez (dotriña), eta bete bear dauan eginbear lez (moral). Mende barriko kristau pentsamentua orretara zuzenduko da. Zelan obeto ori artu eta egiteratu, zelan obeto serbidu. Eta serbidu bearreko gizaki konkretoa eza gutu eta ulertzeko, kristau mezua ari egokitzeke, psiko-soziologiaren datoak izango dira garrantzizkoak.

E.- *Elizen alkartasunerantz* pausu erabagikorrak egingo dira. Au ez, leenengo ta bein, erabagi eta aalegin sendoen ondorioz; kristau kontzientziak berak, kulturaren aldaketa barruan, orain arteko arazo teoriko eta praktikoak beste era batera bizi eta ikusiko ditualako baiño. Mundu globalizatuan, mundu

guztiko arazoak kristau fedea astintzen dabela, geroago eta geiago, eroan eziñeko biurtuko da kristauen banakuntza. Argi dagoenez, alkartasuna indar moral onuragarri biurtuko da gizadi osoaren serbitzurako.

F.- *Munduko erlijioei* buruzko jarrera dau onezkero eupada barria gaurko kristautasunak. Mundializazioaren ondorioz erlijio orreek guztientzat biurtu dira urreko. Inkulturapen-bearrak, Jaungoikoaren graziarekiko baiezkortasunak, personei eta erriei zor jaken begirune sakon benetakoak ulermen eta jarrera barria eskatzen dabe. Euren balorea onartuz ez da kristau fedea bera gitxiagoten. Bere izate sakona ezagutuz, zabalago eta jatorrago onartuko ditu besteen baloreak. Erlijioen arteko ulermen au naitanaiezko izango da munduaren bakerako. Izan be, erlijioetatik sortu diran gogorkeri eta gudak erlijioa bera ukatzen eta deusesten dabe. Ekintza izugarri orreek dira erlijioaren leenengo arerioak. Giza kontzientzia eldu da gaur argi onetara: gizadiaren etsaiak ez dira iñongo jainkoren lekuko, eta ez dabe besterik agertzen gizakiaren beraren izu-irudiak eta griñabultzada ankerrak baiño. Bakea eta maitasuna baiezten eta egiten dituan erlijioa dago bakarrik egi-bidean.

Orrela eta era askotara aldatu ondoren, kristau fedearen alkarteak bera izaten jarraituko dau, gizaki istoriko konkretoari Jesusen presentzia eta doaia, bere alkarte danez, eskeintzen jarraitzen dauan eiñean. Gizakiak be, aldatu arren, betiko arazo eta bearrian sakonak izango ditu. Istorikotasunaren arazoak dira; arazo batzuk menperatzen joanez batera, barriak sortzen jakoz. Gizakia bera dan arazoa ez da iñoz amaitzen istorian.

*Luis Arostegi*